

# DROGETEN

ITURRA

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 316 zenbakia. 2022ko azaroa



**Ireki begiak,  
erne belarriak...**



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatueta:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

### Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Nahia Ruiz Albizuri  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Artarrai Mendi Taldea.

**LAGUNTZAILEAK:**

Anaitasuna Ikastola,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Ana Gómez,  
Patxi López eta  
Valentín Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Anaitasuna Ikastola,  
Begoña Fernández,  
Estibalitz González,  
Asier López,  
Valentín Mugarza,  
Ignacio Pérez,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
Tonbola Solidarioa  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Maren Agirre,  
Piedi Eizagirre  
eta Koldo Narbaiza.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: Erronda-kantua

## Eibartarra tirri-tarra

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Eibartarra,  
tirri-tarra  
jo buruan  
ta erre kara!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA.....4 Asier López (Eivissa)	ERMUAN ZER?..... 18 Euskaraldia martxan da
ELKARRIZKETA.....5-7 Begoña Fernández Alcalde	MOTZEAN ..... 19-20 Nahiaren erakusketa ikusgai
MALLABIAN ZER?.....8-9 Ibiliaz ikasiz	ESKOLEN TXOKOA..... 21 Anaitasuna Ikastolako berriak
ERMUAN ZER?.....10 Arkada Kreativa	IRITZIA..... 22 Eta zuk, zer betaurreko... (Ana Gómez)
SAN MARTIN AZOKA..11-17 Eguneko argazkiak	BOTEPRONTOAN ..... 23 Plácido Hernández
<b>GEHIGARRIA:</b> <b>DEBABARRETIK</b> <b>DURANGOKO AZOKARA</b>	ANTZINAKOAK ..... 24 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
	ZORION-AGURRAK..... 25 Saldu, erosi edo agurtu
	ABENDUKO AGENDA.. 26

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Asier López

2010ean joan zen Asier López ermuarra Eivissara, lan aukera berrien bila. Ordutik bere ibilbidea egin du lan-esparruan zein esparru pertsonalean, eta nekez bueltatuko litzateke Ermura, irlaz zeharo maiteminduta baitago.

**- Duela zenbat denbora joan zinen Ermutik? Zer dela-eta?**

Duela 13 urte etorri nintzen Eivissara, nire belaunaldiak ezagutu duen lehen krisialdiarekin batera langabezian geratu eta gero. Irla hau aurretik ezagutzen nuen, hainbat uda igaro nituelako hemen, eta banekien lana topatzeko aukera izango nuela. Gainera, nire arreba ere hemen bizi da, eta hori lagungarria izan zen.

**- Zer moduz moldatu zinen?**

Lehen urtea oso gogorra izan zen, lanagatik batez ere. Industrian lan egindakoa nintzen, eta Eivissan administrari lana topatu nuen elikagaigintza enpresa batean. Ordezkapen bat egiteko kontratatu ninduten, baina bederatzi urte eman nituen bertan! Enpresa hura utzi nuen egun berean, beste leku batetik deitu zidaten, eta bertan jarraitzen dut. Oso gustura nago, asebeteta maila laboralean zein pertsonalean.

**- Eivissarrek nola hartu zintuzten?**

Ederto. Hasieran nahiko itxiak dira; ezagutzen dituzunean, aldiz, oso atseginak. Laguntzeko prest daude beti.

**- Irla aurretik ezagutzen zenuen arren, zerbaitek harritu zintuen?**

Bai. Ez nituen hemengo neguak ezagutzen eta, udan ez bezala, leku zoragarria da bertan bizi garenontzat, oso lasaia. Bestalde, penintsulan erraza da kotxea hartu eta leku batetik bestera joatea; hemen entzerratuta gaude, nolabait esateko, eta itsasontziaren edo hegazkinaren menpean gaude.

**- Zeintzuk dira irlaren berezitasunak?**

Hemen bizitzea oso garestia da! Bestalde, hona etortzeko arrazoietakoa bat eguraldia izan zen, eta niretzat eguzkiarekin esnatzeak ez dauka preziorik. Urte guztian eguzkitako betaurrekoekin eta prakamotzetan



ematen dugu ia-ia. Hala ere, gauza batzuen falta sumatzen dut: lanetik irten eta lagunekin elkartu betiko tabernan, asteburuan pote batzuk hartu afaltzera joan aurretik... Baina tira, hemengo ohituretara ohitu naiz dagoeneko.

**- Nolako da zure egun arrunt bat?**

Bartzelonako neska batekin ez-konduta nago, seme bat daukagu, eta gure egunerokotasuna oso arrunta da: lanera joan, semea eskolatik jaso, eskolaz kanpoko ekintzetara eraman... Saiatzen naiz kirol apur bat egiten etxean gauzak lasaitzen direnean, eta iluntzean pa-

delean jokatzera joaten naiz.

**- Noiz egon zinen Ermuan azken aldiz?**

Ahal dudan guztietan joaten naiz. Nire gurasoak Leonera joan ziren bizitzera, baina anaia, koinata eta iloba geratzen zaizkit Ermuan, hala nola aitite, egoitzan. Ekainean, umeak eskola bukatzen duenean, astebete joaten gara biok urtero.

**- Ermura bizitzera bueltatuko zinateke?**

Ez, alde batetik familia dudalako hemen, eta bestalde eguraldiagatik: zoragarria da!

**Dorleta Vidal**



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
www.artrosermua.com

Psikologia  
Ongizate pertsonalerako zentroa

**GUZTIOK**  
Nahia Rojo Bustindui  
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua  
Hitzordua: 688 85 18 95

**HARATEGIA - URDAITEGIA**

**MIGUEL**

BERTAKO  
OKELAK

ETXEAN EGINDAKO  
TXORIZO  
TXISTORRA  
ODOLOSTE  
ETA  
KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170563  
ERMUA



**Begoña Fernández Alcalde, Berdintasun teknikaria eta feminista:**

**“Katebegi garrantzitsua izan naiz, protagonista garrantzitsuagoak izan dituen kate baten barruan”**

1989ko apirilean batu zen Begoña Fernández Alcalde ermuarra Udaleko lantaldera, eta hogeita hamar urte pasatxo eman ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan lan egiten. Erretiroaren atarian atzera begiratzean, nekez laburtu dezake urte luze hauetan bizi izandako guztia, baina datozen orriotan ahotan hartu ditu, besteak beste, zerbitzuaren bilakaera, Emakumeen Topalekuaren sorrera eta lanpostuak eragin dizkion pozak eta tristurak.

Gogora ekarri ditu ere lana aurrera eramateko izan dituen ezinbesteko lankideak, eta bidelagun apartarena ere: Maria Rosario Arrizabalaga feminista.

Egindako lanaz harro, aurrera begira dago Begoña dagoeneko, baina aitortzen du borroka feministaren bidean jarraituko duela, matxismoa eta patriarkatua desagerraraziko duten itxaropenaz.

- Laurogeigarren hamarkadaren bukaeran hasi zinen Ermuko Udalean lan egiten. Nolakoak izan ziren lehen urte horiek?

Emakumearen Arretarako Bulegoan hasi nintzen lanean, plazako lokaletan, eta nire egitekoa zen indarkeria matxistaren biktimei arreta eta informazioa ematea, hala nola beraien erabaki prozesuetan laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala ematea. Nire ardurapean zegoen baita ere emakumeentzako eta haien seme-alabentzako Udalak zeukan babes etxea.

- Ermua aitzindaria izan zen emakumeen arretaren esparruan?

Esan beharra dago bai Emakumearen Arretarako Bulegoa bai babes etxea ere herriko feministok egindako borrokari esker sortu zirela. Izan ere, erakundeak ez ziren emakumeen beharrei erantzuten ari eta tokiko mugimendu feministak haiek jorratzeko eskatu zion Udalari. Baina ez edonola, baizik eta eginkizun feminista batetik. Eta puntu horretan hasi nintzen ni: baliabide gutxi-rekin baina gogo handiarekin. Asko zegoen egiteko eta bazen garaia lanari ekiteko.

- Laguntza behar zuten emakumeekin lan egiteaz gain, bulegoaren jarduera herrira zabaldu zenuen?

Jakin banekien indarkeria matxista desberdintasunaren

ondorioa zela, horregatik presakuntza eta sentsibilizazio programak diseinatzen, antolatzen eta martxan jartzen nituen. Elkarlana abiatu nuen ikastetxeekin eta era guztietako elkarrekin, eta ikastaroak eta jarduerak proposatzen nituen eremu guztietan, pentsaera, portaera eta jarrera matxistak aldatzeko helburuarekin. Geroago, aldaketa politiko batzuk egon ziren Udalean, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako teknikari plaza bat sortzea lortu genuen.

- Urte gazi-gozaok izango ziren...

Oso oroitzapen gogorrak datozkit burura, tartean emakumeek egiten zituzten erasoekin kontakizunak, Ertzaintzara eta epaitegietara laguntzen nituen, emakumeak erahiltzen zituztenez, eta baita nire aurkako mehatxuak ere. Baina oso une atseginak ere egon ziren, gehienak.

- Bide horretan bakarrik egon zinen?

Ez, Emakumearen Kontseilua abian jarri genuen, eta talde horren lana eta laguntza funtsezkoak izan ditut teknikari lana burutu ahal izateko. Oso talde indartsua zen, eta hortik bultzatu zen Emakumeen Topalekua erreferentziazko espazio propio gisa. Erakunde mailan ez zegoen hain argi horrelako baliabideen beharra, baina 2003ko martxoan Topalekua



Begoña Emakumeen Topalekuko bulegoan, 2009an.

inauguratu genuen. Gurearen ostean beste Etxe asko sortu dira, eta bisita ugari jaso ditugu gure esperientzia ezagutzeko.

- Lan handia burutu zenuen proiektua errealitate bihurtzeko?

Bai, baina garai hartako oroitzapenak oso politak dira. Kontseiluko emakumeok proposatu genituen Topalekuaren izena, kokalekua, gela banaketa... Lan ederra egin zen. Nik 19 urte eta erdi eman ditut bertan, eta sentitzen dut nire bigarren etxea izan dela. Zentzu horretan onartu behar dut zorionekoa izan naizela, bizitzarako eta borrokarako arrazoia izan dudana eremuan garatu ahal izan dudalako nire lan jarduera. Eta ia denbora guztian lantalde hobeezinezekin. Esan dezaket nire lagunak direla, eta erakutsi didaten guztia benetan eskertu nahi diet.

- Baten baten ekarpena izan da bereziki garrantzitsua?

Bai, guztien artean, Maria Ro-

sario Arrizabalaga Urreta aipatu behar dut. Argi eta ozen esan beharra daukat bera gabe Ermua ez litzatekeela izango gaur egun dena, aintzatespen hori zor diogu.

- Ermuarrontzat biok zarete erreferenteak feminismoaren esparruan...

Maria Rosario bezala, ni ere nahiko gazte nintzela konturatu nintzen bizitzan aurrera egiteko gehiago borrokatu beharko nuela emakumea izateagatik. Beraz, betidanik daukat sentsibilitate feminista hori, hala nola beste pertsona batzuekiko enpatia ere. *Full time* feminista naiz. Zelan ez naiz izango, bada? Seguruenik askotan oso astuna izan naiz: mezuak eta konsignak errepikatzen, hizkuntzaren erabilera sexistarekin... baina uste dut astuna izan behar dela egoera aldatzeko. Era berean, badakit nolabait ere erreferentea izan naizela hainbat politikarientzat, Udaleko langilerentzat, kuadrillakoentzat, senideen-

**“Nahiko gazte nintzela konturatu nintzen gehiago borrokatu beharko nuela emakumea izateagatik”**

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak  
- Ostalaritzarako muntaiak  
- Pertsianak  
- Instalakuntzak eta konponketak  
- Motorizazioa

- Manparak  
- Segurtasun pertsianak  
- Pertsiana dekoratiboak  
- Estoreak  
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

tzat... Agian topiko bat da, baina nire lanaz harro nago: uste dut katebegi garrantzitsua izan naizela, beste protagonista garrantzitsuagoak izan dituen kate baten barruan.

**- Lanean eman dituzun hogeita hamar urte hauetan, gauzak aldatu dira?**

Bai. Ermuko Emakumeek duela 30 urte baino egoera hobea dute, askoz gehiago jabetzen dira desberdintasunaren jatorriaz eta indarkeria matxistaz, eta uste dut baliabideak eskuratzeko aukera gehiago dituztela ere.

**- Aldaketa horretan zerikusia izan du Topalekuaren jarduerak? Burututako zein proiektu nabarmenduko zenituzke?**

Proiektu asko jarri dira martxan, baina hiru nabarmenduko nituzke, izan duten proiektio estrategikoagatik. Lehenengoa, Emakumeentzako Jabekuntza Eskola, baina ez bakarrik aisialdia betetzeko ikastaroak eta tailerrak egiteko espazio bezala, baizik eta ahalduz indibidual eta kolektiborako eta partaidetza sozio-politikorako prestakuntzarako gune gisa. Bigarrena, Nahita

aldizkaria da. Dibulgazio eta sentsibilizazio tresna zen, eta 38 zenbaki argitaratu genituen hiru hilean behin: 2007ko urtarriletik 2019ko irailera arte. Gaur egun ez daukagu dibulgazio tresnarik, eta pena bat da. Aipatuko dudan azken proiektua da Berdintasunaren Aldeko Gizonen taldearen sorrera: Ziprztintzen, alegia. Maskulinitatearen eredu hegemonikoa aldatzeko eta indarkeria matxistaren kontrako aktibistak dira. Iruditzen zitzaidan funtsezkoa zela gizonak aktiboki parte-hartzea borroka honetan, eta prestakuntza bat antolatu nuen haientzat. Hor-tik sortuko zen gerora taldea.

**- Borroka honetan ezinbestekoa da prosoletismoa egitea?**

Horrenbeste urtetan asko ikasi dut, eta dakidan guztia partekatzen saiatu naiz beti: praktiketako ikasleei, unibertsitateko masterretan klaseak emanez, jardunaldi eta kongresuetan hizlari gisa parte hartuz, beste langile teknikoek egindako kontsultak erantzunez... Eta hori guztiori oso pozgarria izan zait beti. Gainera, harremana izan dudan teknikarien aldetik esker ona sentitu dut beti; ezin dut gauza bera esan politikari guztiei buruz, ordea.

**- Lanaren balantzea egin beharko bazenu...**

63 urte bete berri ditut eta bizitzaren une honetan badakit zer den garrantzitsua eta zer ez. Eta oso ondo bereizten dut errealitatea eta isla. Horiek horrela, balantzea egin beharko banu, positiboaren platertxoak gehiago pisatuko luke, zalan-tzarik gabe. Pozik esan dezaket nire lanak eragina izan duela

## “Azken hiru urteotan atzerapauso handiak eman dira leku guztietan, Ermuan ere bai”



Emakumeen Topalekuaren 10. urteurrena, 2013an.

herrian eta Udalean, eta eragin hori positiboa izan dela.

**- Nola irudikatzen duzu feminismoaren etorkizuna?**

Etorkizuna gazteen eskuetan dago, baina helduon eskarmen-tua oso garrantzitsua da. Datorren urtera begira, esaterako, hauteskundeak datoz, eta mezuak eta promesak entzungo ditugu, baina nire gomendioa da ez fidatzea eta adi egotea. Sentitzen dut, baina borroka honek etengabeko arreta eskatzen du, eta oraindik bide luzea egin behar dugu. Azken hiru urte hauetan atzerapauso handiak ikusi ditugu leku guztietan, Ermuan ere bai.

**- Eta nolakoa da zure bizitza gaur egun?**

Aurre-erretiro edo antzerako egoera honetan, nire bizitza nabarmen hobetu da, nire denbora guztia niretzat delako: koro feminista batean abesten dut, euskal panderoa jotzen ikasten ari naiz, asko irakur-

tzen dut, zinera noa astero, loreak eta landareak zaintzen ditut, eskulanak eta artea izugarri gustatzen zaizkit, etxebizitzaz aldatu naiz... Gauza berri horien artean, asko atsegin dut goizetan kafesne bat hartzea terraza batean, lagunekin edo egunkaria irakurtzen. Plazerra da! Eta nire nahia da osasuna eta energia izatea horrela jarraitzeko.

**- Baduzu bete gabeko ametsik?**

Nire ametsa da matxismoa eta patriarkatua erortzea, baina uste dut hori oso lan handia dela pertsona bakar batentzat. Lortuko dugun itzaropena ez dut galtzen, eta ez diot horren alde borrokatzeari utziko: bide horretan aurkituko nauzue eta orain arte egin dudana egiten jarraituko dut, *full time*, baina beste leku batean kokatuta eta askoz ere libreago.

Dorleta Vidal



 **NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com



**LA FORJA KAFETEGIA**



**LONDON**  
-taberna-

# Ibiliaz ikasiz

**Herriko historiak eta ingurumenak eskaintzen duten aberastasunari erreparatze asmoz, Berbalagunek eta Artarraik antolatuta bi ibilbide atseginez gozatzeko aukera izan dute Mallabiko eta Ermuko herritarrek.**

**L**arunbat goizeko eguraldi ederrak eta herriko ondasunak gertutik ezagutzeko aukerak bildu zituen. Berbalagunen “Mallabitarrok egina” egitasmoaren harira eta euskara praktikatuaz, herrigunean hasi eta Zengotita auzora abiatu ziren ekimenean parte hartzera animatutako 14 lagunak. Bertan Julian Bilbao auzokideak eta Pello Mugarza historiazaleak zeuden lekuaren eta geroago bisitatuko zutenaren gaineko hainbat zertzelada kontatu zituzten: Julianek umetako gogorapenak, Pellok Zengotita familiaren kide batzuen gainekoak...

Handik gero, eta ordu erdiko ibilbidearen ostean, Markol parajera iritsi ziren, gaur egun txabola erabilpena duen kartzela izandako eraikina gertutik ezagutu. Oiz mend iaren magalean, Etxebarri baserriaren basoetan kokatua, ateburuko inskripzioak 1858 urtean eraikia izan zela argitzen du, karlistengatik, eta presoek ihes egin ez zezaten jarritako burdinazko barroteak ere bistan ditu

oraindik. Lagun taldea ibilbide zirkularra eginez Markoletik Zengotitara jaitsi zen berriro, bertako ermitan hasi eta Berrizko errepide zaharraren trazatuari jarraituz, Okako errotaraino doan ibilbidean zehar joan-etorriko atsegina eginez.

Hurrengo asteko igande goizez, Artarrai mendi taldearen proposamenez “Ireki begiak, erne belarriak” ekimenaz gozatzeko aukera izan zuten gerturatutako 75 umek eta



Mikel Yarza materiala prestatzen Errekalden.



Mallabian antolatutako irteerako parte-hartzaileak Markolgo gartzela ondoan.

helduk. Mikel Yarza eta Iñaki Iturriagagoitia naturazaleek inguruan ditugun animalia, landare, zuhaitz eta harriak

beste modu batera erreparatzeko eta entzuteko gonbitea egin zieten parte-hartzaileei. Goiz-pasa interesgarria bihurtu zen Ermuan irten, Ongaraiko Txara mendixkara igo, Pagorbe ingurura jaitsi, Artamendiko Egurmenditik Errekaldera eta Ermura bueltan egindako ibilbidea: mikak eta buztanikarak hegan doazela desberdintzen ikasi, haritzetan sortzen diren kuku-sagar bolatxoak batu, zuhaitz gaixoetako okil-zuloak begiz jo, kanposantu ondoko Flysch-aren ezaugarri geologikoak “irakurri”, landare inbaditzaile kaltegarrienak ezagutu... Ibilbidean animalia desberdinek lagatako oinatzak, lorratzak eta korotzak identifikatzeko begirada ere zabaldu



**ITZE**  
OPTIKA  
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Drogetenitutti, 316 zk.

**solozabal**  
t a b a k o a k

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33





zitzaien parte-hartzaileei: bainatzeko lekuak, hazka egiteko erabilitako zuhaitzak, lurrera jausitako lumak...

Erlauntza baten ingurura gerturatuta, erle eta Asiako liztor bana ontzi berezietan sartu eta lupa bidez hobeto aztertzeo aukera egon zen, txikien lilurarako. Errekalden, hamaiketakoarekin batera, erleen eta erlauntzen gaineko hainbat kuriositate partekatatu zituzten bi gazte ermuarrek. Beherago, Drogeten iturrin geralditxoa egin ostean, zuzen Valdespina parkera: goizari amaiera ezin hobea emateko, erreka ertzeko eta parkeko zuhaitzetan bost txori-habia jarri ziren. Oparitxoak ere banatu ziren, umeen eta helduen gozamenerako.

Estibalitz González



## HAINBAT JARDUERA ANTOLATU DIRA AZAROAREN 25AREN INGURUAN



Mallabiko Berdintasun Kontseiluarekin elkarlanean, Mallabiko Udalak jarduera ezberdinak antolatu ditu azaroaren zehar Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren inguruan. Azaroaren 6an hasi ziren ekitaldiak (film laburren eta kontakizuen jaialdia, hitzaldiak, antzerkia...), eta 27an bukatuko dira. 25ean, ostirala, kotzentrazioa egingo da frontoiko aldapan, 12:00etan. Bertan, adierazpen instituzionala eta eskolako umeen leloak irakurriko dira, eta "Indarkeriaren kontrako abestia" abestuko da, Berdintasun Kontseiluak antolatuta. Hilaren 17an, domekan, hitzaldia egingo da Kontzejuzarrean: "Indarkeriaren aurpegi guztiak", izenburupean, 12:15ean, Nahikari Emakume Elkarteak antolatuta.

## AITOR ELORDIK BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA JOKATUKO DU LEHENENGOZ

Pilotari mallabitarra asoian dago eta hala erakutsi du bukatu berri den lau t'erdiko txapelketan. Hori dela-eta binakako txapeletan ere jardungo du aurten aurrenez, Jose Javier Zabaleta nafarrarekin batera. Eibarko Astelena frontoian jokatuko du bikote honek lehen partida (azaroaren 30ean, 17:00etan), Altuna III.a eta Tolosaren aurka. Bigarrena, berriz, Zornotzako pilotalekuan jokatuko du (abenduaren 2an, 22:00etan): Elordi-Zabaleta Ezkurdi-Martijaren kontra. (Arg. Ignacio Pérez).



**SAN ANTONIO** OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**AIZ**

**AIZ Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen

Arkada Kreativa:

# “Gure helburua da barruan dugun horri irteera ematea”

Arkada Kreativa Ermuko talde anitz bat da, proiektu ezberdinak biltzen dituena. Orain arte kaleratu duten diziplina bakarra musika izan den arren, proiektu gehiago dituzte, forma hartzeko zain.

## - Nola sortu zen Arkada Kreativa?

Arkada Kreativa guk jakin baino lehenago sortu zen. Kide batek abesti bat zuen buruan, eta denbora osoan kantatzen zegoen, musika gabe. Orduan kuadrillako bati esan zion abestiari musika jarri behar ziola, *pun-ka pu-pun-ka* antzeko zerbait eta, ordenagailu aurrean jarrita, ordu erdi behar izan genuen lehenengo abestia sortzeko. Ez genion ekimen horri jarraipena eman nahi, baina denbora batera beste proiektu batzuk ere sortu ziren eta dena bateratzeko kontzeptu hau berreskuratu genuen.

## - Zein da kontzeptua?

Arkada Kreativa: barruan duzun guztia botatzeko plataforma, estilo eta arte-estilo ezberdinetan.

## - Eta noiz sortu zen?

Taldekide baten ilearen arabera neurtzen dugu: hasi ginenean ilea koloreztatu berri zuen, eta sustraiak begiratuta neurtzen dugu igarotako denbora, zuhaitzak bezala. Orain dela urtebete, gutxi gorabehera.

## - Zein da zuen helburua?

Gure helburua barruan dugun horri irteera ematea da, Ermutik Ermuarentzat.

## - Ze pertsona mota zaudete taldean?

Atal hau oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Bertan gaudenok ez gara ezertan adituak (ez musikan, ez abesten, ez ezertan), baina proiektua gustatzen zaigu eta aurrera ateratzeko gogoia dugu. Kontua da gure

lanak hartzean, entzutean edo ikustean, ezin direla ikuspuntu teknikitik aztertu, ez garelako adituak. Momentuan sentitzen denari erreparatu behar zaio, sentimendu hori edozein delarik. Talde irekia da, eta bakoitzak nahi duen horri ekiten dio, horregatik daude disziplina anitzak.

## - Legerik edo araurik duzue?

Musikaren esparruan bai, eta uste dugu irizpide hau talde osora zabaldu daitekeela: ezin dira taldeko inoren ideiak zapaldu (idea zapaltzaileak eta baztertzaileak ez badira) eta “gehiago, gehiago da”. Normalean, bizitzan, gauzak txikitzen saiatzen gara, baina talde honetan kontrakoa egiten dugu.

## - Ze disziplina lantzen dituzue?

Oraingo musika da gehien garatu den arloa, eta lau abesti sortu ditugu: azkena, Hartzaren Koplaren remixa. Orain, garrantzitsua iruditzen zaigu arte plastikoaren disziplina eratzea, eta hasieran proiektua musikari lotuta zegoenez, dantza proiektu bat ere garatzea pentsatu genuen, Tiktok formatuan.

## - Non entzun daitezke zuen sorkuntzak?

Youtuben eta orain Spotifyn ere.



## - Nola sentitu zineten Ermuko Hartzaren Koplak remix abestia plazan entzun zutenengan?

Oso pozik. Azken asteetako lana plaza-ratzea kristorena izan da guretzat eta jendearen erantzuna izan da onena. Denok elkarrekin Ermukoak diren koplak abestuz, erritmo eta doinu modernoak erabiliz.... flipantea!

Nahia Ruiz Albizuri



Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

✂️

943 170474

ileapaindegia

**Silvia**

peluqueria

✂️

688819336

# XXII. San Martin Azoka

Euskal Birusa Elkarteak antolatua.

Argazkiak: Valentin Mugarza eta Dorleta Vidal.



## ALTALDI

Correduría de Seguros, S.L.

Probaleku 8, behea  
943 17 01 43 · 943 17 18 02  
ermua@altaldi.com  
48260 · ERMUA · Bizkaia

**INMOBILIARIA J.S.** [www.inmojs.com](http://www.inmojs.com)  
943 171802  
676 212575

info@inmojs.com







 **DANOBATGROUP**

 **euskaraz**  
**IZANGO**  
**GARA**

HARTU PARTE DANOBTAGROUP-EN  
**EUSKARAREN EGUNA ETA**  
**EUSKARALDIAREN AMAIERA**  
OSPATZEKO LEHIAKETAN!



Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta irabazi produktu ekologikoz betetako otarre bat.

[info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2022.html](http://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2022.html)

**LEHIAKETAREN IRAUPENA**

2022ko abenduaren 2tik  
abenduaren 14ra (00:00 h).

 **DANOBTAGROUP** / **DANOBTAT** / **GOIMEK** / **IDEKO** / **LATZ** / **SORALUCE** 



**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

Berrogei dendek eta tabernek apaindu dituzte beraien erakusleiho eta mostradore, txukun, koloretsu eta ilusio ikaragarritz. Egunak aurretik gauza bila, prestatzen, eskuekin sortzen, garbitzen, handik edo bestetik garraiatzen... Estimatzekoa da guztiok, irabazi edo ez irabazi, egiten duten ahalegina eta erakusten duten sormena.

**1. saria: Senén bitxitegia**

Epaimahaiak erakusleihoaren orjinaltasuna baloratu du eta baita azokaren produktuei beste erabilpen bat ematen jakin izatea, ogiak erloju bihurtuz.

**2. saria: Beta elektrizitate-denda**

Epaimahaiak baloratu du erakusleihoan konposizio organiko koloretsu eta argitsua egiten jakin izana.

**TXERRIAREN ERRIFA**

1. Saria - 400 €: 1.538.  
Erreserba: 938.

2. Saria - Landetxe batean aste-burupasa bi lagunentzat: 545.  
Irabazlea: Leonor Quiñones (argazkian).

**EUSKAL JANTZIEN ARGAZKI LEHIAKETA**

Irabazlea: Sara García.

**Miguel Mugarza, epaimahaikidea: "Gauza asko ikasi ditut eta egun ederra pasatu ere"**

Miguel Mugarza ermuarra herriko hainbat ekimementan parte hartzen du, batez ere gabonetan, umeen gozamenerako. Aurtan, herriko ordezkaria izan da San Martin Azokako epaimahaian.



- Zelan hartu zenuen epaimahaikide izateko proposamena?

Euskal Birusatik deitu zidatenean sorpresa izan zen, ez nuen espero, baina pozik hartu nuen.

- Zer produktu dastatu zenituen Azoka egunean? Zazpi gazta ezberdin, bost ezti inguru, sei ogi, hiru sagardo eta sei txakolin.

- Zerbait ikasteko aukerarik izan zenuen?

Bai, aditu ezberdinekin egin genuen aipatutako produktuen dastaketa, eta haiek azaltzen ziguten zein ezaugarri izan behar zituzten kalitatezkoak izateko. Gaztaren kasuan, esaterako, kolorea, azala... Horren arabera aukeratu genituen Azokako irabazleak.

- Nola baloratzen duzu esperientzia?

Positiboa, balantze ona egiten dut, gauza asko ikasteko aukera izan nuelako. Gustura ibili nintzen, eta 9 edo 10eko nota emango nioke. Egun ederra igaro nuen!

**KALABAZAREN PORRA**

Aurtengo kalabazaren porran 201 apustu egin ziren, eta pertsona bakar batek asmatu zuen haren pisua: Ander Bouzok (7,80 kg.)




**Torrealday**  
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA **ERMUA**

**Plan B**  
Coffee Lounge **B** Gin & Beer




57. DURANGOKO AZOKA  
 2022ko abenduaren 7tik 11ra  
[www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus)



**EZTANDA!**



**eztandari**



**Sorkuntzaren eta  
 jaiaren eztanda**

# Durangoko Azokak "eztanDA!" egingo du abenduaren 7tik 11ra

Azken bi urteotako murrizketak alde batera lagata, ohiko formatua berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak. Abenduaren 7tik 11ra egingo da, *EztanDA!* lelopean, eta, aurrez aurreko salmentaz gain, online dendari ere eutsiko dio.


Gerediaga elkarteko presidente Nerea Mujikak azaldu duenez, 57. Durangoko Azokan euskal kulturaren "eztanda" biziko da: "Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda izango da; Durango osotik eta Euskal Herri osorako zabalduko den eztanda. Bost egunez iraungo duen eztanda".

Idea horri tiraka sortu du, hain justu, Ruben Ramos diseinatzaileak aurtengo azokarako kartela. "Ilustrazioak unibertsorearen eta Big Bangaren hedapenera eramaten gaitu. Inklusibitatearen baitan, pertsona ezberdinen (ez emakume, ez gizon) ideiak, ilusioak eta norberaren imajinario koloreduna irudikatu dut. Kulturak berak, bai literaturak, bai musikak, beste leku batera eramaten gaituen isla".

Kartela ez ezik, DA! irudi korporatiboarekin batera zabalduko den ikono berri bat ere sortu du egileak aurtengo ediziorako: "Izar moduko ikono bat da, eztanda irudikatzen duena".

## Ohiko gunekak

Ikasle Goizarekin emango diote hasiera egitarauari hilaren 7an. Bertaratuko diren milaka ikasleek hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izango dute –komikiak sortzeko tailerrean edo *PortaDA!* erronkan, esaterako–. Eta, lehen aldiz, hezitzaileek tailerrak jasoko di-



Kulturazaleak iazko azokan.

tuzte –hezkuntzarako baliabide digital libreei buruzko saioan eta euskal kulturaren transmisioaren gaineko solasaldian–.

Horrez gain, bost eguneko kultura programazioa izango da bertaratzen direnentzat, hainbat gunetan banatuta: Irudienea, Saguganbara, Ahotsenea, Kabi@, Talaia eta Szenatokia. Askotariko hitzorduak egongo dira bertan aurrera, beste behin ere.

Ahotseneako eszenatokian, adibidez, 47 talde arituko dira eta, azken urteetan bezalaxe, zuzeneko emanaldiak Plateruenan izango dira. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango alde aurretik izena ematea. "Ahotsenea sortzaileen topalekuak 15 urte beteko ditu aurten eta ospakizun berezi honetarako

bost eguneko musika-maratoia antolatu dugu", nabarmendu dute guneko arduradunek.

## Online denda

Landako guneko aurrez aurreko erakusmahaietz gain, aurten ere erosketak etxetik egiteko aukera egongo da abenduaren 7tik 10era. Denda digitalean –*durangokoazoka.eus* atarian– azokako nobedade guztiak egongo dira eskuragarri. Eta behin azoka amaituta, abenduaren 11tik aurrera, *Zu non, han DA!* egitasmoaren bitartez, Euskal Herriko hamaika dendatan Durangon aurkeztuko diren nobedadeak erosteko aukera egongo da, hirugarren urtez. Horrez gain, liburu aurkezpenak ere antolatuko dira hainbat saltokitan.

**Argitaratzailea:** Debabarreneko Komunikazio Taldea

**Azala:** Ruben Ramos

**Erredakzioa:** Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

**Diseinua eta maketazioa:** Oier Larreategi

**Tirada:** 18.710 ale





# "Kulturari ekarpenik handiena sortzaile eta kulturazaleek egiten diote"

**BEÑAT GAZTELURRUTIA GEREDIAGA ELKARTEKO KIDEA**

Normaltasun egoera berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak, eta horren nondik norakoak azaldu ditu Gerediaga Elkarteko Beñat Gaztelurrutiak.

## **Bi urteren ondoren, betiko formatua berreskuratuko du azokak. Pozik?**

Bai, jakina. Azokarentzat urte zailak izan dira, gizarte osoarentzat izan diren moduan. Sasoi nahasiotan guztiok daukagu gauzak bere onera etorriko diren ametsa. Baina, susmoa dut, aurrerantzean dena izango dela gero eta desberdinagoa.

## **Zer eskainiko du aurten azokak?**

Azoka barruko espazioaren antolamenduan aldaketa batzuk egin ditugu, liburuak eta musika bereiztuta. Apalategi bat ere montatuko dugu, euskarazko liburu berriak eskuartean hartu eta kontsultatzeko. Diskoen kasuan, QR kode bidez disko bakoitzeko kanta bat entzuteko aukera egongo da. Gauza gehiago ere bai, 250 aurkezpenetik gora gune eta hainbat diziplinan eta abar. Onena bertara etorri eta norberak ikustea da.

## **Zein da Durangoko Azokak euskal kulturari egiten dion ekarpena?**

Kulturari ekarpenik handiena sortzaileek eta kulturazaleek egiten diote. Azokaren lana da harreman hori indartzea, batzuei bere lana erakusteko plaza emanez eta besteei bila aritzeko bidea erakutsiz. Azokak egiten duen lan hori berori egiten dute urtean zehar hainbat eragilek. Dena den, ez naiz oso oker ibiliko esaten badut euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa dela Azoka, eta hori ekarpen handia da, euskal kultura existitzen den froga garbia delako eta euskal kultura badela defendatzen dugunok indarrez betetzen gaituelako.

## **Pandemiak kulturagintza jipoitu zuen. Bi urteko etenaldi horri eman al zaio buelta?**

Ez nuke esango euskal kulturaren arazorik handiena pandemiaren jipoia denik. Benetako arazoa da ez garela nahikoa kulturazale kultur-ekosistema osasuntsu bat mantentzeko. Horri ez badiogu heletzen bere ertz guztietatik, jai daukagu.



Beñat Gaztelurrutia. ANBOTO

## **Datuen arabera, papera izugarri garestitu da, liburuak ez dira irakurtzen, diskoak ez dira saltzen... badirudi gauza asko kontra dituela Durangoko azokak. Zein espektatiba duzue aurtengorako?**

Ertz asko ikutu dituzu galdera bakarrean. Paperaren garestitzea bizitzaren garestitzearekin lotu behar da, eta erosahalmena jaisten denean badakigu kultura izaten dela kaltetuenetako bat. Diskoak ez saltzea digitalizaioarekin ere lotu behar da. Digitalizazioak gauza onak ekarri ditu, musikagintza "demokratizatu" egin du, autoekozipena sustatu du, bide berriak zabaldu ditu. Baina, aldi berean, euskarri fisikoa desgertzeko bidean jarri du eta, horrekin batera, sortzailearentzako diru-sarrerak. Bistan da arazoak asko direla eta Azokak berak bakarrik ez diela irtenbiderik emango guztiei. Uste dut asko hausnartu eta pausoak adostu behar direla eragileen artean, eta horrek eskatzen du hausnarketa zintzoak egitea eta eskuzabaltasunez jokatzeta.

## **Nola ikusten duzue etorkizuna?**

Etorkizunari baikortasunez begiratu behar zaio beti. Ez gaitezen autobetetakoprofezia baten jausi. Euskal kulturak egiturazko arazoak ditu, baina lanean gogoz ari den balio handiko jende pila bat ere bai. Nik neuk horri heltzen diot. Aurtengo Azoka behintzat ederra izango da, eta datozenak ederragoak izan daitezen lanean jarraituko dugu.


## **"Euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa da azoka"**

## **"Aurtengo azoka ederra izango da, eta datozenak ederragoak izan ditezten lanean jarraituko dugu"**

# Debabarreneko uzta


## DEBA - ITZIAR

### LITERATURA




#### ERIKA LAGOMA POMBAR ETA ESTITXU FERNANDEZ MARITXALAR 'M ama\* eme\* ume\*'

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.




#### JON ABRIL OLAETXEA 'Isildutako eskuak. Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian'

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.




#### NEREA LOIOLA 'Naian'

Erein.  
Aurkezpena: abenduak 10,  
larunbata, 17:00. Saguganbaran.



#### NEREA LOIOLA '7G udalekuak'

Erein.  
Aurkezpena: abenduak 10,  
larunbata, 13:30. Ahotsenean.



#### NEREA LOIOLA 'Epicentro'

Gaztelerez. Erein.

#### TENE MUJIKA UDAZKENEKO ARGITAN

Cira Crespo



#### CIRA CRESPO 'Tene Mujika. Udazkeneko argitan'

Debako Udalak. Durangon Elkar-ek salduko du bere postuan.

### MUSIKA



#### NEOMAK TALDEA 'Neomak'

Airaka.  
Aurkezpena: abenduak 8,  
osteguna, 15:40. Ahotsenean.

### EIBAR

### MUSIKA



#### MICE 'Lautada'

Forbidden Colours.




#### KOKEIN 'Atomika'

Autoekoitzia.




#### MARKOS UNTZETA 'Ekilibrista'

Gaztelupeko Hotsak.



#### SUTAGAR 'Alarma'

Autoekoitzia.



#### LORELEI 'Ekografiak'

Elkar.

### ELGOIBAR - MENDARO

### LITERATURA




#### UXUE ALBERDI 'La belle'

Elkar argitaletxea.




**DANELE SARRIUGARTE**  
 'Assata shakur autobiografia bat'  
 Itzulpena. Katakarak.



**DANELE SARRIUGARTE**  
 'Hamahiru ipuin'  
 Luisa Carnesen ipuinen itzulpena. Erein.

**MUSIKA**



**JON GURRUTXAGA** 'Belar Hostoak I&II'  
 Elkar. Txomin Artolak, Walt Whitmanen testuekin, 1978an argitaratu zuen Belar Hostoak diskoaren moldaketa berria kaleratu du Elkar argitaletxeak lan bikoitz honetan. Artolak Mixel Ducau, Jean Phocas, Beñat Amorena eta Robert Suhas izan zituen bidelagun 78an. Lan hari keinua Jon Gurrutxagak, Urbil Artolak, Dani Venegasek, Antxon

Sarasuak eta Andoni Etxebestek egin diote oraingoan.



**MARACA DIABLO** 'Maraca diablo'  
 Screaminguy records.

**ERMUA**

**LITERATURA**

**TXABI ARNAL** 'Hiru lehoi'  
 Elkar argitaletxea.

**MUTRIKU**

**MUSIKA**



**SAIA GOAIT** 'Miazkatu'  
 Autoekoitzia. Musika Zuzenean erakusmahaiari egongo dira diska saltzen.



**DELIRIUM TREMENS.** 'Hordago'  
 Mauka musikagintza. Aurkezpena: abenduak 7, asteazkena, 21:30. Ahotsenean.

**SORALUZE**

**MUSIKA**


**PAUL SAN MARTIN** 'Single'  
 Gaztelupeko Hotsak.



**MORAU ETA BEÑARDO** 'Ardo'  
 Disko liburua. Gaztelupeko Hotsak.



**MAINLANDER** 'Mainlander'  
 Gaztelupeko Hotsak.




**XAHU** 'Gero geroakoak'  
 Gaztelupeko Hotsak.



**KIKE ARZA ELECTRIC QUARTET** 'Biharko Mendekaitz'  
 Gaztelupeko Hotsak.

**SYMBIOSIS 5** Jazz Getxo  
 Gaztelupeko Hotsak.



**ORGANIZING** 'Short Stories'  
 Gaztelupeko Hotsak.



**RS FAKTOR (RUBEN SALVADOR)** 'Equanimity'  
 Gaztelupeko Hotsak.



**JON PIRIS & IÑAR SASTRE** 'Pasieran'  
 Gaztelupeko Hotsak.



**THE NEW JAZZ COLECTIVE** 'Lucio Urtubia'  
 Gaztelupeko Hotsak.



**HUTSUN + JEL TRIO** Artze  
 Gaztelupeko Hotsak.

# "15 bat disko argitaratzen ditugu urtean, seguru aski, Euskal Herrian gehien"

**UBANE UZIN** GAZTELUPEKO HOTSAK DISKOETXEKO KUDEATZAILEA

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak disko ugari izango ditu Durangoko Azokan salgai, euren banatzaile den Elkar argitaletxearen stand-ean; jazz asko, blues diskoak, disko-liburu tematikoa... musika mota asko eta artista askoren lanak ondu dituzte azokarako.

## Zelako uzta eramango duzue Duran-gora?

Askotarikoa. Andoni Tolosa Morauk eta Beñardok ateratako ardoari buruzko disko-liburutik hasi, Markos Untzeta eibartarraren diskotik segi, blues diskoak, jazz asko... Bestalde, Txuma Murugarrenena ere badugu, baina atzeratu egin da.

## Artista asko egotea kasualitatea da?

Gaur egun, musikak dituen aldaketekin, dibertsifikatu egin beharra dago; guk horrela egin dugu eta momentuz, ondo funtzionatzen digu.

## Zergatik dibertsifikatu beharra?

Musika euskarri fisikoan geroago eta gutxiago saltzen da. Lehen ateratzen zenuen produktu gutxi eta horietatik asko saltzen zen; orain, berriz, produktu gehiago atera behar dira, izan ere, horietatik gutxiago saltzen da.

## Diskoien ezaugarriak ere aldatu dira? Motzagoak dira...

Ez, lehenengo modukoak. Azken batean, diskoak zuzenekoan defendatu behar dira eta zuzenekoak ordubete pasako kontzertuak izaten dira.

## Aipatu dituzun izenen artean badaude aspaldiko klasikoak, 'Morau', adibidez...

Bai, Andoni Tolosa etxekoa da, aspaldi ezagutzen dugu. Gainera, oso emanaldi kuriosoa egin du, ardoaren inguruko tematikoa, Biba Ardoak-ekin elkarlanean... Soraluzen izango da emanaldia abendu-ko lehen asteburuan; beste hainbat lekutan ardo kata eta guzti egiten du. Adibidez, Chillida Lekun, Biba Ardoak-ek ardoa ipini zuen eta Chillida Lekuk pintxoak, musika entzuteraz joatea baino gehiago izan zen, esperientzia oso bat.

## Aurten, baina, ez zarete egongo Durangoko Azokan Gaztelupeko Hotsak moduan...

Fisikoki ez. Gaur egun, musika enpresa guztiak orokorrean txikiak dira; guk

bestelako lan karga handia dugu Gabonen buelta honetan eta ezin gara biderkatu. Elkar da gure banatzailea eta han egongo dira gure produktuak.

## Bestalde, gauza asko eramango dituzue, baina beste asko ezin dituzue eraman, ezta?

Horrela da. Durangoko Azokara, hemengo musikariak izateaz gainera, euskarazko produkzioa eraman behar da. Guk, berriz, produkzio asko dugu ingelesez, bluesa, batik bat, eta horrek han ez dauka lekurik.

## Liburugintza ere lantzen duzue; hortik eramango duzue zerbait?

Ez. 2022ko erabakietako bat izan da libururik ez publikatzea. Guk bi urte daramatzagu digitalizatze prozesuan eta ez dugu gaitasunik denean egoteko. Musika salmenta bera digitalera doa.

## Buruhauste handia da?

Hori baino, beste lan batzuk egitea eskatzen duela. Gainera guri musika fisikoa eta zuzenekoak gustatzen zaigu, oso arrotza egiten zaigu bestea.

## Zailtasunak zailtasun, Euskal Herrian gehien produzitzen duen diskoetxea da Gaztelupeko Hotsak?

Bai, seguru aski bai. Urtean erreferentzia asko ateratzen ditugu, gutxiago saltzean disko gehiago atera behar ditugulako urtean salmenta iturriak antzerakoak izateko. Urtebetean, 15 bat disko (erreferentzia) argitaratzen ditugu.

## Hala ere, zuen helburu nagusia ez da izan inoiz salmenta handiak lortzea edo udako kantak sortzea...

Bueno, hortik bizi gara, baina beti izan gara ibilbide luzeko produktuak ateratzekoak. Gu gara Serie B. Eta ohore handiarekin, gainera.

## Zenbat erreferentzia ditu Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak?

450etik gora, 90eko hamarkadatik hona.



Ubane Uzin eramango dituzten produktuak batzuekin. FERNAN OREGI

## Eta zeuen lekuari eusten segitzen duzue.

Bai, geroago eta gehiago gaude espezializatuta musika beltzean eta oso-oso gertuko diren euskal artistekin. Egia esan, beti esaten dugu ez garela sartu behar gauza berrietan, baina batzuetan etortzen zaizkigu gauza berriak, bigundu egiten gara eta aurrera egiten dugu. **Artista berriendako, baina, bazarete erreferentzia...**

Bai, baina geroago eta zailagoa da artista berri batekin aurrera egitea. Nik uste dut musikagintzan, disko eta kantu on bat egin ahal dela, baina gero hori taula gainean defendatu egin behar da eta gaur egun benetan zaila da. Antzokietakoek nahi dute antzokiak beteko dituzten artistak. Eta halako gutxi daude. Lehen, musika taldeek bira egiten zutenean, Soraluzeko Gaztetxea bira horren barruan zegoen, kontzertu areto modura. Edo txosnaguneak ziren sasoi batean artista berriendako aukerak. Orain, berriz, txosnaguneetara ere talde handiak joaten dira. Hasiberri batendako oso zaila da. Eta egon badaude. Begira Debagoienean egiten ari diren Danbakan zenbat talde dauden. Baina, leku ofizialtan taldeek bete behar dituzten baldintzak oso nekezak dira: Gizarte Segurantzza, nominak... ordaindu behar dituzte, ondorioz, amateurismoa asko moztu da. Amateurrek ere profesionalen pareko baldintzak bete behar dituzte eta hori musikagile edo musika talde berri batendako benetan zaila da.

## Durangoko Azokara bueltatuz, ematen dio bultzada musikagintzari?

Nik uste dut beti ematen duela zerbait. Eta gainera, epe bat jartzen du, eta produktu berriak Durangoko Azokari begira egiten dira. Gauzak asko aldatu dira, baina Durangoko Azoka bera ere asko aldatzen ari dira.

# "Garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako"

ASIER SERRANO LORELEI

Lorelei musika taldeak 'Ekografiak' (Elkar, 2022) izeneko diskoa kaleratu du taldearen sorreraren 25. urteurrenean.



Antxon Sarasua, Mikel Gorosabel, Asier Serrano eta Loiola Madera.

## Zerk bultzatu zaituzte bi hamarkadaren ondoren disko berria kaleratzera?

Orain dela hiru urte kontzertu batzuk emateko elkartu ginen, ilusioarekin eta, batez ere, herdoila kentzeko. Hamar kontzertu izan behar ziren, baina pandemiaren ondorioz hiru eman genituen. Oso harrera ona izan genuen. Gero, baikoitzak bere odisea edo miseria pertsonalak pasa zituen. Niri, adibidez, lepoko ebakuntza larria egin zidaten. Ondo atera zen, baina min neuropatikoak eratu zitzaidan besotan eta ez negoen ezertarako. Orain animoz hobeto nago, baina joan den urtea gogorra izan zen. Orduan, Nortonek, animatzeko edo, diskoa grabatzea proposatu zidan.

## Eta baiezkoa eman zenion?

Nahiz eta sormenerako panggal egon, Nortonek lehenengo abestiaren doinua pasa zidanean, nagitasunez, baina heldu egin nion. Barealdia sentitu nuen, gertatzen ari zitzaidanaz berba egiten nuelako. Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu

oso intimotik. Modu terapeutikoan edo, beste kantuak konposatzen hasi nintzen Nortonekin eta disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen. Ez azkena, baina bai herentzia moduan lagatzeko diskoa. Loreleik eman didana eta niretzat duen esanahia islatu nahi izan dut bertan.

## Nolakoa izan da grabaketa?

lazko abenduan eta urtarrilean grabatu genuen diskoa, eta orain arte sekretuan eduki dugu. Ia urtebete egon da izozkailuan, minak noiz baretuko eta noiz indarberrituko zain, irailan argitaratu arte. Prozesu lasaia izan da. Sasoi hauetan diskoek beste toki bat hartu dute eta Elkar argitaletxeak esaten ziguten zaharrak gara eta presarik ez dugula. Beraz, lasai hartu dugu, beste arlo batzuetan indarra jarri (diskoaren azalean, adibidez) eta artefaktuaz gehiago gozatu dugu.

## Aita izan zara berriki. Horrekin zerikusia du 'Ekografiak' izenburuak?

Horrekin lotuta dago, baina era berean ez. Azken urteetan proba mordoa egin

dizkidate eta ekografiei sasoi batetako tarot irakurleen zentzua hartu diet. Ekografiak oihuak jaurtitzeko dituzte eta horren erantzuna jasotzen dute. Kontzeptu horretan sakondu nahi izan dugu. Izan ere, adin honetan gure gorputzen mugimenduak neurtzen ditu eta, bestetik, iraganean botatako oihuak gaur egun nola jasotzen ditugun adierazten ditu. Orain garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako.

## Letretara joz, zertaz jardun duzu?

Ikuspuntu pertsonalak azaltzen dira azalean eta letretan, baina nahiago dugu entzuleek berera egokitzea. Azken neurrian, ni guztiak dira ezberdin, berdinak direlako. Abestiek galderei buruz eta Eibarko haurtzaroz berba egiten dute, besteak beste. Batez ere, nola ihes egin dezakegun zuri-beltzetik koloreetara. Hau da, guk aukeratu dezakegula ekografia margotzea.

## Iraganean oihartzun indartsua laga zuen Loreleik, hainbeste urtetan isilik egon ondoren publikoak beso zabalik hartu zaituztelako. Nola bizi duzue hori?

Niretzat oso hunkigarria izan zen kontzertuak berriz ematea. Andoainean izan zen lehen kontzertua eta ez negoen urduri, shock egoeran baizik. Ez gatoz gazteei lekua kentzera, hori ez da gure helburua, ezta belaunaldi berriak konkistatzera ere, baina ikustea gure belaunaldiko jende hori kontzertuetara etorri zela, ez dakit gaztetzera edo nostalgia musukatzerarekin, izugarria izan zen.

## Zuen musika ondo zahartu den seinale?

Orain dela 25 urte, guk ez dakit, baina Gaztelupeko Hotsak asko arriskatu zuen. 90. hamarkadan ez zen ohikoa eta zailtasunak zeuden gure eskaintza jasotzeko. Hau da, poesia eta pop-rock musika eskaintzea, heavy eta punk eszena zegoenean. Sasoi horretan diskoen salmentek agintzen zuten eta, gure harri-durarako, gureak funtzionatu zuen.

## "Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik"

## "Ez azkena, baina disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen"

# Ahotseneako egitaraua

## Asteazkena 07

**OLAIA INZIARTE** 14:30-15:00



**MARACA DIABLO** 15:40-16:10

**ZAKILL** 16:50-17:20

**SUA** 18:00-18:30

**BOLBORA** 19:10-19:40

**GOXUA N'SALSA** 20:20-20:50



**DELIRIUM TREMENS** 21:30-22:00

## Osteguna 08

**BILAKA** 11:00-11:30

**PIZTIAK** 12:10-12:40

**INES OSINAGA** 13:20-13:50

**RODEO** 14:30-15:00



**NEOMAK** 15:40-16:10

**HIBAI** 16:50-17:20

**KURKUMA** 18:00-18:30

**WILLIS DRUMMOND** 19:10-19:40

**KRISTONAK** 20:20-20:50

**SUTAN** 21:30-22:00

## Ostirala 09

**LUMI** 11:00-11:30

**ILARGI** 12:10-12:40

**AGUR** 13:20-13:50

**MIRUA** 14:30-15:00

**XSAKARA** 15:40-16:10

**MUGAN** 16:50-17:20



**KOKEIN** 18:00-18:30

**KEIA** 19:10-19:40



**MICE** 20:20-20:50

**EZPALAK** 21:30-22:00

## Larunbata 10

**PASADENA** 11:00-11:30

**ASSATA** 12:10-12:40

**ASLA** 13:20-13:50

**KYXO** 14:30-15:00

**PERU GALBETE** 15:40-16:10

**ESTI MARKEZ** 16:50-17:20

**DUKKHA** 19:10-19:40



**BENGO** 20:20-20:50



**ØDEI** 21:30-22:00

## Igandea 11

**ARIMA SOUL** 11:00-11:30

**FUFU** 12:10-12:40

**ORBEL** 13:20-13:50

**TXOST!** 14:30-15:00

**WATSON** 15:40-16:10

**IRTERA** 16:50-17:20



**MERINA GRIS** 18:00-18:30

**JANUS LESTER** 19:10-19:40

**BURUTIK** 20:20-20:50

**MAIRU** 21:30-22:00

## SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Epaimahai honek aukeratu ditu aurtengo San Martin Azokako sarituak: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobidek, Idiazabal Gazta-Izendapeneko Igor Hernándezek, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorikak, Euskal Biruseko Asier Ibaibarriagak, herriko ordezkaria izan den Miguel Mugrazak eta Ermuko Udaleko Arri Araiztegik.



## FRUTA ETA ORTUARIAK

1. saria: Jose Antonio Fernández (Buenos Aires-Ermua)
2. saria: M<sup>a</sup> Pilar Mallabia (Agarre-Mallabia)

## GAZTA

1. saria: Patxi Baskaran (Santa Marina-Markina)
2. saria: Eñaut Gallastegi (Onandi-Mallabia)

## OGIA

1. saria: Iñaki Uranga (Mañaria)

## EZTIA

- Txilar eztia: Igor Merino (Barakaldo)  
Mila-lore eztia: Garikoitz Llona (Zornotza)

## SAGARDOA

1. saria: Jose Antonio Bilbao (Axpe-Markina)

## TXAKOLINA

1. saria: Jose Antonio Bilbao (Axpe-Markina)

## AIPAMEN BEREZIA

- Alice Goffart eta Andoni Rodelgo (Errezil)



Zer



duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan  
daiteke EZ, baina  
modu bakarrean ulertu.

**SOILIK BAI DA BAIETZ.**

azaroak **25** Emakumeen kontrako  
Indarkeria Desagerrarazteko  
Nazioarteko Eguna

**900 840 111** 24 h  
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



araba álava  
foru alderdia diputación foral



# Eskerrik asko laguntzaile guztiei!

**TALOGINTZA:** Maritxu Etxebarria/ Miren Astarloa/ Marijose Goigogana/ Maddi Goikoetxea/ Maitasun Idigoras/ Mari Karmen Urkidi/ Xabier Urkidi/ Jokin Txapartegi/ Arrate Maguregi/ Amelia González/ Marian Ruiz/ Maite Areitioaurtena/ Ziortza Zelaia-Zugadi/ Maialen Arrizabalaga/ Naiatze Yantzi/ Maitane Pagoaga/ Maitane Millán/ Xabi Goikoetxea/ Aitor Arrizabalaga/ Ander Prol/ Josu Gómez/ Nahia Ruiz/ Alicia Lejardi/ Libe Solozabal/ Maitane Mugerza/ Leire Gorritxategi/ Mila Uranga/ Asier Cascán/ Maialen Ugena/ Maddi Rodríguez/ Cristina Rojas/ Julen Rodríguez/ Mirene Moreno/ Lidia Jiménez/ Oier Araiztegi/ Manex Agirregomezkorta/ Oihane Vega/ Hiart Redondo/ Haizea Manso/ Olatz Mugerza/ Iratxe Odriozola/ Nekane Bilbao/ Lorea Perosanz/ Bea Palacios/ Iñigo de la Peña/ Leire de la Peña/ Libe Areitioaurtena/ Olatz Espeso/ Rosa Jausi/ Lide Arrieta/ Jon Arrieta/ Jone Agirregomezkorta/ Irati de Dios/ Mari Carmen Allende/ Irune Yarza/ Lorea Txapartegi/ Bea Ugena/ Irune Aranberria/ Arantza Cañamares eta Izaro Areitioaurtena. **TXIKURIXAK:** Natalia Arrieta/ Rikar Txabarri/ Nerea Iriondo/ David Gómez/ Rober González/ Jorge Rodríguez/ Eneko Goikoetxea/ Aitor Jauregi/ Esther Larreategi/ Alex Alvarez/ Jokin Díez/ Txomin Espilla/ Toñi Montero/ Eneritz Arriaga/ Arantzi Perosanz/ José Antonio Martínez Carbajo/ Alberto Belar/ Julen Berriozabal/ Antxon Ziarsolo/ Miguel Fernández/ Manu Arnal/ Pablo González/ Idoia Zamakola/ Txebis Gorritxategi/ Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritxategi/ Eukene Lamariano/ Ane Rodríguez/ Patricia García/ Alicia León/ Ines Arano/ Ekaitz Amezua/ Aitor Garitagoitia/ Manex Olaizola/ Alaitz Fernández/ June Madariaga eta Julen Molinilla. **MUNTAIA/DESMUNTAIA:** Olga Bayón/ Jose González/ Rosa Baltar/ Juanma Rodríguez/ Cristina Palacios/ Juanjo Solozabal/ Jabi Vidal/ Jose Santos/ Josu Cruz/ Fernando Orbe/ Josu Garitagoitia/ Gus Blanco/ Fernando Aranberri/ Ramón Redondo/ Koldo Aranberria/ Amaia Arginzoniz/ Edurne Abellanal/ Ione Ortega/ Gorka Alzaa/ Aitor Ogiza/ Bea Narbaiza/ Tomas O'Callaghan/ Javi Sánchez/ Fran Carrascosa/ Juanmi Bravo/ Miren Gorritxategi/ Jaione Pernudo/ Agustin Prado/ Nahia Ruiz/ Leire Cascán/ Andrea Lorenzo/ Asier Barreira/ Iñigo Sainz/ Andoni Santamaria/ Urtzi Lamariano/ Maite Bergara/ Markel Uranga/ Danel O'Callaghan/ Manex González/ Julen Castro/ Iker Gómez/ Malen Pinilla/ Libe Telleria/ Lorena Sánchez/ Maialen Ugena/ Maddi Rodríguez/ Beñat González/ Xarles Araiztegi/ Martxel Carrascosa/ Lucía Vazquez/ Andoni Cabeza/ Jokin Azpilikueta/ Nora Garabal eta Xabi Ugena. **TICKETAK ETA KARTELAK:** Yolanda Unamuno/ Idoia Narbaiza/ M<sup>a</sup> Angeles Landaarroitajauregi/ Patxi Goitandia/ Marga Pérez/ Juantxo Díez/ Ramón Redondo/ Jone Redondo eta Aitzol Redondo. **KALABAZA-PORRA:** Libe Masié/ Mikel Madarieta/ Jokin Aranburu/ Danel Gorritxategi/ Irati Yarza eta Paule Gorritxategi. **SAIHESKIA:** Oier Egaña/ Isa Montejo/ Aintzane Plaza/ Gorka Elgea/ Iñaki Bildosola/ Egoitz Gerrikabeitia/ Elena Anton/ Txomin Espilla/ Iñaki Totorika/ Julen Sololuze/ Mariano Casado/ Jesús Gómez/ Manolo González eta José Antonio Lejardi. **BURUKO ZAPIAK:** Mari Karmen Urkidi/ Laura Cruz. **UDALAK / ERAKUNDEAK:** Ermuko Udala/ Udaleko Kultura, Berdintasuna eta Euskara Sailak/ Udaleko Brigada/ Udaltzaingoa/ Mallabiko Udala/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila, Euskaraldia, BBK eta Monroe Automotive. **EPAIMAHAIKIDEAK:** Miguel Mugarza / Arritxu Araiztegi/ Nahia Ruiz eta Almu Maeso. **ERRIFAK:** Marisabel Garitagoitia/ Angel Bravo/ Ramón Redondo/ Jone Redondo/ Aitzol Redondo/ Anboto eta Urreta burdindegia/ Beta elektrizitate-denda/ Solozabal estankoa/ Irale hortz-klinika/ Amaia Urkizu eta Miguel harategiak/ MT ileapaindegia/ Kokko, Idoia, Sehiga eta Quetzal jantzi-dendak/ Gauzak kinkila-denda/ Sagardui poltsa-denda/ Capero's, Dakota, Déjate Querer, Ertz, Giroa, Goien, Hanigan's, Herga, Infreñu, Karabixa, Karikato, London, Lurpe, Mendiola, Plan B, Sagarra, Secretos, Sorgin, Torrekua, Txalaparta, Txantxiku, Xagua, Yomy, Zabal eta Zutabe tabernak/ Mayte urdaitegia. **ERAKUSLEIHO LEHIAKETA:** Senen bitxitegia/ Anboto eta Urreta burdindegia/ Arrieta elektrogailuak/ Beta elektrizitate-denda/ Abeletxe erresidentzia/ Ekilore eskulanak/ Solozabal estankoa/ Mary fruta-denda/ Argintxu eta Rubi gozo-dendak/ Miguel eta Danotz harategiak/ Irale hortz-klinika/ Ainner, Leire Rasco, Mado's, Malla eta Marfil ileapaindegia/ Beep informatika-denda/ Kokko, Mediterranea, Munay, Ramos eta Quetzal jantzi-dendak/ Gauzak eta Guipur kinkila-dendak/ Maribel eta Xiripot liburu-dendak/ Procolor margo-denda/ Alboka Musika Eskola/ Zapatxiki oinetako-denda/ Arriaundi okindegia/ Artarrai opari-denda/ Itze optika/ Orbe pertsianak/ Sagardui poltsa-denda/ Hannigan's eta Karabixa tabernak/ Mayte urdaitegia. **BESTELAKOAK:** Emilio Carral/ Jon Larrañaga/ Lucia Aldalur/ Mari Feli Manzidor/ Iñigo Pro/ David Gomez/ Alberto Arginzoniz/ Laura Olabe eta Anittu-goiko baserria. **TALDEAK:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Antxitxiketan Aisialdi Taldea/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea eta Malengo Elkarte. **TALDE ERAGILEA:** Igone Amesti/ Gaizka Areitioaurtena/ Araitz Barruetabeña/ Naroa Beitia/ Nerea Berriozabal/ Piedi Eizagirre/ Nagore Espilla/ Eider Gisasola/ Estibalitz González/ Asier Ibaibarriaga/ Joseinas Larrañaga/ Aroia Lejardi/ Manuel Moreno/ Unai Rodríguez/ Eli Txurruka/ Marines Txurruka/ Rodol Ugena/ Tere Uriarte eta Dorleta Vidal.

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda



**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**



**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14



# Gure talogileak

Aurtengo San Martin Azokan talogile aritu izan dira biak: Miren Astarloa 1989ko lehen edizioan parte hartu zuen, eta Maddi Goikoetxea 5 urterekin hasi zen talogintzan, horretan aritu den pertsonarik gaztena izatearen ohorea duelarik. Bata txapan erretzen da trebea, egiten bestea.

## Miren Astarloa



### - Zelan hasi zinen taloak egiten?

Akordatzen naiz lehenengo urtean ez genuela talorik egin eta ipini genuela txorizoa ogi artean. Gure artean taloak egite kontuak aipatu genituen. Nik etxetik nekien: gurean aita zen talo egilea eta ni erretzailea. Erretzeaz arduratu nintzen hurrengo urtean eta oraintxe ere horretan dihardut.

### - Talo bat ondo erretzeko, zer behar da?

Su ona. Behar den moduan egiteko su indartsua behar da, buelta eta buelta eman eta kitxo! Su ona badaukat, ni gustura egoten naiz erretzen; hori bai, ondo ez badabil, ernegatu egiten dut. Erretzen gaudenok jakin egiten dugu apurtu eta berriro egin bada talo bat, ze buelta ematekoan marrazki moduko batzuk azaltzen zaizkio, masa erabili eta berregin den seinale.

**- Zer suposatzen du zuretzat San Martinen kolaboratzeak?** Poztasun handiko eguna izan da beti niretzat eta asko gustatzen zait, piloa. Egun horretan gainera aspaldi ikusi bako jendea ikusten duzu, etxeok datorkizu bisitan... Niretzat, gozamen!  
**- Erreleboa ikusten duzu?**

Itzela! Gazte piloa egon zen taloak egiten, neska eta mutil, denetik egon zen eta gazteak badaude erreleboa dator. Gogoarekin datorrenak egingo ditu. Nik beti ikusi dut atzetik nork jarraitu badagoela, eta pozik!

## Maddi Goikoetxea



### - Zelan hasi zinen taloak egiten? Noiztik diharduzu?

Nire amak 25 urte daramatza talogile eta 5 urte nituela bere laguntzaz nire lehenengo taloa egin nuen. Ordutik aurrera urtero egin izan ditut.

### - Erraza da talo bat egitea? Talo on bat ateratzeko, zer behar da?


Ez da zaila, baina praktikaren beharra dago. Aurrean daukazun masak eskatzen dizuna jakin behar duzu. Kontuan izan behar da zen-

bat eta irin gutxiago erabili, taloa orduan eta goxoagoa izango dela: taloa eskuetan edo oholean pegatu ez dadin irina erabili beharra dago, baina neurrian. Talo on baten beste berezitasun bat fina izatea da, eta bereziki ona da txapan erretzean puztu egiten den taloa.

### - Zer suposatzen du zuretzat San Martinen kolaboratzeak?

Hasieran amarekin batera taloak egiteak ilusioa egiten zidan, egun polita zen eta zerbaiten parte nintzela sentitzen nuen. Gaur egun, horretaz gain, San Martinak direnaren benetako zentzua ulertzen dut, eta herriarentzako euskal kultura eta euskararen aldeko jai bat antolatzeari ematen diot garrantzia. San Martinak herritarron artean egiten ditugu posible eta nire ekarpenetako bat taloak egitea da.

Estibalitz González



**Jon Albizu**  
**Ainhoa M. Goitandia**

Extremadura zeharbidea z/g  
**48260 ERMUA (Bizkaia)**  
Tel.: 943 174 505



**DG Horacio Decoración**  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK



Goienkale 9 behea  
48260 ERMUA Bizkaia  
943 17 66 90



**Hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527



**Ferreteria**  
**ANBOTO**  
**Burdindegia**

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN**  
**KOPIAK** ere  
egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

# Euskaraldia: Hitzez ekiteko garaia!

Azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2ra bitartean burutuko da Euskaraldiaren III. edizioa. "Hitzez ekiteko garaia" lemapean, Ahobiziek eta Belarriprestek kaleak bete dituzte berriz ere, euskaraz hitz egitea inoiz baino errazago izan dadin. Ermuarrok eta Mallabitarrok ere ekimenarekin bat egin dugu, eta zuk?

Ermua:

922 ahobizi eta  
belarriprest

49 arigune

Mallabia:

247 ahobizi eta  
belarriprest

14 arigune



Izena emateko:

[izenematea.euskaraldia.eus](https://izenematea.euskaraldia.eus)



## Nieves López gaztaina-saltzaileak txosnatxo berria du

Zubiaurre kalean jartzen du Nieves Lópezek gaztainak saltzeko bere txosnatxo udazkenero. Iaz baina, ezezagun batzuk apurto egin zioten gau batean eta, hala nola konponduta, eutsi zion denboraldia amaitu arte. Herritar askoren animoak jaso zituen eta batzuk diruz ere lagundu nahi izan zioten: hainbat eta hainbat diru-ekarpen jaso zituen txosna berri bat erosi ahal izateko, tartean bere itsulapikotik aurrerakinak atera eta “txabola berri bat erosi dezazun” esanda gerturatu zitzaion umea. Ordukoak gogoratuta hunkitu egiten da, eta eskertua dago oso. Betiko lekuan jarraitzen du, neguko iluntze hotzak gaztaina gozoz berotzeko prest, neskatotxo zenetik betidanik egin duen bezalaxe.



## Nahiaren erakusketa ikusgai dago Emakumeen Topalekuan

“Horrelakoa nahizela gogoratu dut” izenburua dauka Nahia artista ermuarrak Emakumeen Topalekuan duen erakusketak. Hiru lanez osatutako erakustaldi multidiziplinarra da, eta azaroaren 23tik abenduaren 11ra bitartean egongo da ikusgai: astelehenetik ostegunera 8:00etatik 15:00etara eta 16:30etik 20:00etara; ostiraletan, 8:00etatik 15:00ak arte.



## EUSKARAZKO IRAKURKETA KLUBEKO SAIOA BURUTUKO DA ABENDUAREN 12AN

Ana Malagón idazlearen *Ez dakit zertaz ari zaren* liburua izango da euskarazko irakurketa klubeko protagonista abenduan (hilaren 12an, 19:00etatik 20:30era). Udal Liburutegiak antolatutako irakurketa klub hau urria eta maiatza bitartean burutzen da, eta parte hartu nahi dutenek aldez aurretik eman behar dute izena Lobiano Kulturgunean. Saio guztiak Unai Villena idazleak dinamizatzen ditu, eta haien helburua da irakurketaren esperientzia giro atsegina eta erosoan konpartitzea eta gozatzea, antolatzaileen esanetan.



# Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 17 43 44 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusiboak:

**Allianz**   
Seguros

**HAINBAT EKINTZA  
BURUTUKO  
DIRA ERMUAN  
EMAKUMEENAKO  
INDARKERIAREN  
KONTRAKO EGUNA  
DELA-ETA**

Ermuko Udaleko Berdintasun Sailak hainbat ekintza antolatu ditu Azaroaren 25aren inguruan, eta haien helburua da "herritarrak sentsibilizatzea eta gizarte-gaitz hori zuzenean pairatzen duten pertsonen elkartasuna adieraztea", Udalaren webgunean irakurri daitekeenez. Azaroaren 25ean, ostirala, 19:00etan, elkarretaratzea egingo da Orbe Kardinalaren plazan. Bertan, adierazpen instituzionala irakurriko da eta indarkeria matxistaren biktima guztiak oroitzeko ekintza bat aurkeztuko da, Ermuko ikastetxeetako ikasleen parte-hartzearekin. Bestalde, Tokiko Jabekuntza Eskolaren eta Beldur Barik programaren testuinguruan, hainbat tailer eta jarduera egiten ari dira gazteekin herriko ikastetxeetan. Halaber, indarkeria matxistaren aurkako mezuak jasotzen dituzten olanak jarri dira udaletxean, Emakumeen Topalekuan eta plazako kioskoan.

## Alain Kortazarren antzerki-lan berria eszenatokietan

Sasoi baten Ermuko Antzerki Tailerreko zuzendaria izandako Alain Kortazar aktoreak hainbat lan burutu ditu azkenaldian: Manuela Burló Morenok zuzendutako *Por H o por B* seriearen bigarren denboraldia grabatu du, Javier Fesser-en *Historias lamentables* filmean parte hartu du eta izugarrizko arrakasta izan duen sandwich baten iragarkiko protagonista izan da. Egunotan, berriro ari da eszenatokiz eszenatoki antzerki-lan bat taularatzen: Madrilgo Sin Fin konpainiaren *Lupe y Pancho* obra, hain zuzen ere. Madril inguruko antzoki desberdinetan topatu daitekeen lan hau umeei eta helduei zuzenduta dago, eta bi anaia-arreben periploa kontatzen du, euren jatorrizko Mexikotik alde egiteko premia sentitu eta bizi-baldintza hobeto batzuen bila, Atlantikoa zeharkatuko dutenak. Modu samurrean, baina ezer ezkutatu gabe, migrazioaren zailtasunak eta paperik gabeko pertsonen ilegaltasuna kontatzen du testuak. Aurrerago Ermuan ere antzezteko asmoa dute.



## Aurten ez da zabalduko Tonbola Solidarioa

Ermuko Tonbola Solidarioa bertan behera geratuko da aurten lehen aldiz. Izan ere, ekimena bera aldaketa prozesu batean murgilduta dago, antolatzaileen esanetan: "Pertsona nagusi asko daude taldean, eta haien produkzioa urriagoa da urtetik urtera. Hori dela-eta, asmoa da hemendik aurrera bi urtetik behin zabaltea tonbola". Izan ere, adierazi dutenez, alde teknikoek arduratuko diren gazteak hurbildu zaizkie, eta tonbolak jarraipena izango du. Horren adierazle da San Martin Azokan postutxua jarri zutela tonbolako emakumeek, eta eskuz jositako euskal jantziak izan zituzten salgai. Haiekin kolaboratu nahi dutenak (eskuz egindako jantziak edo margolanak eramanez, esaterako), tonbolako lokalera hurbildu daitezke astearteetan, Udaletxearen ondoan. Baina adi, urtariletik aurrera, Merkatu Plazan izango du Tonbolak egoitza, eta bertara joan beharko da.



**uriarte asesores** ✓  
Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

**mari  
asun**   
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**Infreñu  
Taberna**

Kardinal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**LEIRE RASCO  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96**


 @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)



# Anaitasuna Ikastolak buru-belarri parte hartu du San Martin Azokan

Ikasturte honetan ere gogotsu hartu dugu San Martin Azokan parte hartzeko Euskal Birusak egindako gonbidapena. Beste behin ere zoragarria izan da. Ilusioa eta poza bidelagun. Prestaketan iaz baino denbora gehiago eman dugu Ikastolan. Denok aritu gara buru-belarri jabetzak, ukenduak, san blasak, galletak zein postre goxoak egiten.



Azpimarratzekoa da ikasleek izan duten inplikazioa. Gogotsu aritu dira prestaketan, osagaiak nahasten, antzinako pasarteak entzuten... irribarrea izan dute lagun San Martin Azoka entzuten zuten bakoitzean. Egunean bertan ere postuan egoteko denbora labur geratu zitzairen, eta egindakoa errez saldu zuten. Aurtengoa ez dute hain errez ahaztuko, ez!



Eta ezin utzi aukera hau eskertza mezurik gabe. Eskerrik asko azokan modu batera edo bestera parte hartu duzuen bakoitzari. Guzti hau ez litzateke posible izango 390 langile finen ilusiorik gabe. Eskerrik asko! Datorren urtean ere aurtengo ilusio berarekin arituko gara.



**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
enter@informaticaenter.com

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

**Proba-Leku**  
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

## Eta zuk, zer betaurreko erabiltzen dituzu?

Duela hiru urte idatzi nuen aldizkari honetan nire azken artikulua, kasualitatez, Koronabirusa bere saltsan zegoenean. Eta gehienok ez genekien zer zetorkigun gainera.

Gauza asko gertatu dira hiru urte hauetan, onak eta txarrak, eta, kasu batzuetan, hausnarketa egitera eramantzen gaituzte: egiten dugu nahi duguna gure bizitzarekin? edo, besterik gabe, lagatzen dugu beste batzuk gu eramaten, aldaketaren aurrean heldurra dugulako edo besteek esango dutenak izutzen gaituelako?

Kasualitatez, lan egiten dudana enpresaren berdintasun Planean sakontzea egokitu zait, eta bitxia da ikustea

nola txikitatik bideratu gaituzten, "zuzena" dena izan eta senti dezagun.

Hizkuntza, arropa, publizitatea, sare sozialak... Txotxongiloak gara gutxi batzuen neurriera egindako mundu batean, eta bertan ondorio negatiboak ditu desberdina izateak. Kontrakoa izan beharko luke: aniztasunak humanoago bihurtu beharko gintuzke.

Apurka-apurka mezua zabaltzen doa, hainbat jarduera antolatzen dituzten pertsona, erakunde eta elkarte askoren ahaleginari esker. Duela gutxi, monologo feministez gozatzeko aukera izan genuen Ermuan. Ni Basaurira hurbildu nintzen ekitaldi bera ikustera, eta gustatuko litzaidake esatea are-



Ana Gómez

toa gainezka zegoela, baina ez zen horrela izan.

Pena ematen dit ekitaldi hura antolatzeke lanak ez zuelako erantzunik izan herritarren aldetik, baina bertaratu ginenok gustura egon ginen, eta poz hori partekatu dezakegu beste pertsona batzuekin.

Duela denbora gutxi lagun batek esan zidan: "Euli-betaurrekoak kendu behar dituzu, eta erle-betaurrekoak jantzi". Hori egiten saiatzen naiz: alde positiboa bilatzen, edalontzia erdi beteta ikusten.

Eta zuk, zer betaurreko erabiltzen dituzu?

“ Txikitatik bideratu gaituzte  
"zuzena" dena izan eta senti dezagun ”

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txapiroak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) ENKARGUAK  
943 030 299

Komunitateak

**San Pelayo**

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Zuri egokitzen den odontologia  
La odontología que se adapta a ti

Dr. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

**PADI** 943 17 04 04  
Programa Ayuda Dental Infantil Gobierno Vasco  
info@clinasanpelayo.com  
San Pelayo Zeharkalea 5 48260 Ermua (Bizkaia)

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**Kopi-Fax**

FOTOKOPIAK  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOA  
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

# PLÁCIDO HERNÁNDEZ

- Nola gogoritzen duzu haurtzaroa?

70. hamarkadako haurtzaro arrunta izan nuen, auzokoa. Fraideen ikastetxe batean ikasten nuen, gero eskubaloian entrenatu, merienda jan, etxeko lanak... Aita kamioilaria zen, eta gutxi egoten zen etxean.

- Eta gaztaroa?

Oso gazte hasi nintzen lanean. Institutuan ikasten ari nintzen bitartean bertako mantentze-lanetarako arduraduna nintzen.

- Zer ikasi zenuen?

Aparejadorea izan nahi nuen, baina gauzak okertu egin ziren. Delineazioa ikasi nuen, gero aparejadore ikasketak egiteko asmoarekin, baina soldadutzatik bueltan ez neukan ikasten jarraitzeko gogorik.

- Orain urteak daramatzazu Ermuko Udaleko brigadako buru. Zer da lan honetan gehien estimatzen duzuna?

Lehen laupabost urteetan ez zitzaizkidan ospakizunak batere gustatzen (San Martin Azoka, Santixauak...), lantalde txikia garelako. Denborarekin proiektuak ezagutzen joan naiz, eta nahi izaten dut ekitaldiek arrakasta izatea.

- Eta gutxien?

Kritika iraingarria, sare sozialean bitartez egiten dena batez ere.

- Zer egiten duzu aisialdian?

Aita naiz, eta horrek denbora eskatzen du. Horrez gain, bizikletan ibiltzen naiz: ibilbideak prestatzen ditut ordenagailuan eta alportxeekin zein bikoteki-dearekin eta haren semearekin egun pasa joaten gara.



**Barakaldon jaioa duela 50 urte, Bilbon bizi da. Bera baino gazteagoa den arreba bat dauka, ezkongabea da eta bi alaba ditu. Azken 13 urteetan Ermuko Udaleko brigadako burua da, eta Ermukoa da ere bere egungo bikotekidea.**

- Bidaiatzea gustatzen zaizu?

Penintsulatik ibili naiz batez ere. Dena den, nire ametsa da Eskoziara edo Islandiara joatea, bizikletarekin.

- Musikazalea zara?

Ez. Kotxean musika klasikoa daukat irratian, baxu-baxu, konpainia egiteko batez ere.

- Telebista, irratia, zinea, antzerkia...

Uste dut arte eszenikoetarako sentsibilitatea falta zaidala.

Umorea gustatzen zait, baina

oso gauza zehatzak: Faemino y Cansado, esaterako. Bestalde bideo asko ikusten ditut YouTube: bidaiei buruzkoak, umorezkoak, mekanikari buruzkoak, sukaldaritzakoak...

- Kozinatzea gustatzen zaizu?

Bai, eta esperimintatzea. Esku ona daukadan arren, gutxirentzako aritzen naiz, ez zaizkit aglomerazioak gustatzen.

- Plater bat aukeratzekotan...

Paella, eta arroza oro har. Gauza arruntak ditut gustuko.

- Biziorik?

Gozozalea naiz, eta ez dut barkatzen goizeko kafea, bai ala bai taberna batean hartu behar dudana.

- Bertute eta akats bana?

Bertutea, ez naizela batere herratsua; akatsa, oso zorrotza naizela eta ez ditudala azalpen gehiegi ematen, lanean batez ere.

- Erraz haserretzen zara?

Ez, pazientzia handia daukat.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Pertsona faltsuek eta puntualtasun ezak, esaterako.

- Eta zerk barrea eragin?

Komentario ironikoez eta ateraldaldi gatzdunek.

- Zer miresten duzu pertsona batengan?

Asko eskertzen dut ingurukoek poztasuna transmititzea.

- Bizitzako egunik zoriontsuena?

Nire alabak jaio zirenean.

- Hartu duzun erabakirik zailena?

Banatzea, agian. Dena den, orokorrean ez zait kostatzen erabakiak hartzea.

- Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Uste dut ikasten jarraitu behar nuela, behintzat saiakera egin.

- Teknologia berriak...

Gero eta txartoago moldatzen naiz: GPSa eta GoProa martxan jarri ezinda nabil!

- Ze albiste irakurri nahiko zenuke?

Herrialdeen arteko desberdintasunak desagertu direla.

Dorleta Vidal

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**ZERMik**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-entrepresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
"LAN BABESARAKO  
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

# MALLABIA 1977

Argazki hau 1977ko ekainean aterata dago. Bertan agertzen diren umeeek lehenengo jaunartzea egin zuten Mallabiko elizan. Argazkian agertzen dira: Jose Antonio Vazquez, Eduardo Astigarraga, Miren Gallastegi, Goreti Txurruka, Jose Pradera, Emilio Pradera, Miren Izquierdo, Juan Luis Totorika, M<sup>a</sup> Angeles Agudo, M<sup>a</sup> Sol Prol, Begoña Sanchez, Jose Alberto Martinez, Andres Coco, Maite Leanizbarrutia, M<sup>a</sup> Jesus Justel, Richard Diez, Rosi Limia, Manu Riaño, Alfredo Muñoz, Juan Carlos Martinez eta Ismael Pradera.



# ERMUA 1956



Amaia Urkia eta Moises Gorosabel Sallabenteko ermitan ezkondu ziren urte horretako maiatzaren 24an eta bikotea Parrokiako abesbatzako kidez inguratuta agertzen da erretratuan. Atzeko ilaran, ezkerretik eskumara Luis Mari Izagirre, Eladia Unamuno, Florita Gorritxategi, Jose Mari Crespán, Rosarito Ibaibarriaga, Begoña Areitioaurtena eta Joseba Idigoras. Erdikoan Miren Iriondo, Agurtzane Salaberria, Begoña Laka eta Aintzane Laka. Aurrekoan M<sup>a</sup> Ignacia Olañeta, Luisita Malcorra, ezkonberriak, Domingo Solabarrieta eta Begoña

Agirregomezkorta. Abesbatzako zuzendari izan zuten Moises sasoi baten, D. Domingo abadea ere, eta Luis Mari izan zen abeslari talde honen azkenengo burua. Errepertorioan eliz kantuek, herriko euskaldunak... Kide batzuk Abeslariak taldean jarraituko zuten gerora eta Pispillu abesbatzan beste batzuk.



**Caperos**

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitarkeoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA \* ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apandegi bat  
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

**943 17 28 09 • Goienkale 12**



## LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.  
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.  
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.  
© 617 67 49 27

## IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.  
© 688 68 36 55.

EHuko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika. © 626514969



**Abenduaren 3an**  
Zorionak Danel!  
Patxo erraldoi bat familia guztiaren partez zure lehenengo urtebetetzean. Asko maite zaitugu, bihurritxo!!



**Abenduaren 15ean**  
Zorionak Unax!!!  
4 urtetxo gure bizitza hankaz gora jartzen. Gozatu pila eta jarraitu hain alai! Maite zaitugu infinituraino eta harantzago!




**Maier (abenduaren 2an) eta Aiora (abenduaren 19an)**  
Zorionak bikote! Besarkada erraldoia lehengusu guztien partez!



**Abenduaren 8an**  
Zorionak lone!!!  
Ondo pasa eguna!! Patxo erraldoi bat familia guztiaren partez zure zortzigarren urtebetetzean!! Asko asko maite zaitugu!!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Azken eguna: Abenduaren 15a.



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko

**PRO**  
arraindegia



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA



**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOIA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

**ZINEA**

**Hilaren 3tik 5era:**  
"La Maternal" +  
"El cuarto pasajero"

**Hilaren 10etik 12ra:**  
"Armageddon Time" +  
"La mujer rey"

**Hilaren 17tik 19ra:**  
"Vasil" + "As Bestas"

**Hilaren 26an eta 27an:**  
"Historias para no contar"

**Urtarrilaren 2an eta 3an:**  
"El menú"  
Antzokian. Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 1:**  
"Tori y Lokita"

**Hilak 8:**  
"Close"

**Hilak 22:**  
"Sintiéndolo mucho"

**Hilak 29:**  
"Suro"  
Antzokian. 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 4:**  
"Nire zirkua"

**Hilak 11:**  
"La gran aventura"

**Hilak 18:**  
"Rabbit Academy. El gran robo de los huevos de Pascua"  
Antzokian. 17:00etan.

**MUSIKA**

**Hilak 17:**  
Blues kontzertua: Bernard Sellam & The Boys From The Hood. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 10 €

**Hilak 21**  
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Ermua Antzokian. Doan.

**Hilak 23:**  
Kontzertua: Maika Makovski. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12 €

**ANTZERKIA**

**Hilak 2:**  
"Boeing Boeing", Andoni Ferreño eta Agustín Bravorekin. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15 €

**Hilak 16:**  
"Vida", La Red Teatroaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8 €

**Hilak 30:**  
"Yerma", La Dramática Errante konpainiaren eskutik. 20:00etan. Antzokian. Sarrera: 10 €.

**DANTZA**

**Hilak 22:**  
Txindurri taldea. 17:45ean. Antzokian. Sarrera doan.

**GABONETAKO HAUR KANPAINA**

**Hilak 17:**  
Ermuchef: umeentzako jarduerak. 16:00-19:00, plazan.

**Hilak 23:**  
Trena, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda.

**Hilak 24:**  
Olentzero txikiren kalejira. 11:00etatik aurrera, Orbe kardinalaren plazatik.

**Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra:**  
Gabonetako haur-parkea: puzgarriak, ohe elastikoak, ludoteka, jumping, taile-rrak... 11:00-13:00 eta 16:00-20:00. Sarrera: 2 €

**Hilak 26:**  
Antzerkia: "Munduari itzulia 80 egunetan", Glu-Glu Produkzioak. 17:00etan. Antzokian. Sarrera: 4 €

**Hilak 28:**  
Antzerkia: "Tarzan", Mar Mar Teatroaren eskutik. 17:00etan. Antzokian. Sarrera: 4 €

**Hilak 31:**  
Olentzero (kalejira). 18:00etatik. Orbe Kardinalaren plazatik.

**Urtarrilaren 4an:**  
Umeentzako eta gazteen-entzako kontzertua: "Goazen 9.0", Pausokaren eskutik. 16:00etan eta 18:00etan. Antzokian. Sarrera: 6 €

**Urtarrilaren 5ean:**  
Errege Magoen kabalgaita. 18:00etatik aurrera, San Lorenzo ikastetxetik irtenda.

**BESTELAKOAK UMEENTZAT**

**Hilak 3:**  
Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobianon.

**Hilak 17:**  
Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.


**BESTELAKOAK**

**Hilak 17:**  
Kanpai-jotzeko aurreraparen jaia. 20:00etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan.

Patxi López



**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15



Luis Cañas  
Amaren  
Cair  
Ehun  
Txakoli Astobiza  
Pazo Señorans  
Cava Oriol Rossell

Cair  
Casar de Burbia  
Bodegas Valdemar  
García de Olano  
Manzanos Wines  
Pernod Ricard Wines  
Faustino García Martínez.

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
BODEGAS Y VINEROS

nitida

T.943176075

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)



**RIF**

ITURGINTZA  
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10



**URRETA** burdindenda

- ✕ Etxea
- ✕ Tresneria
- ✕ Erikoizajea
- ✕ Errailak
- ✕ Giltzak
- ✕ Sarrailagintza
- ✕ Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan  
espezialistak



VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412



## ETXEBIZITZEN ENERGIA-AUTODIAGNOSTIKOA

# “Norberak bere etxebizitzaren autodiagnostikoa egin ahal izateko irizpideak emango ditugu”

Debegesa etxebizitzaren energia-autodiagnostikorako egiaztapen-zerrenda lantzen dihardu.

### Zergatik jarri duzue martxan ekimen hau?

Energiaren prezioak demaseko gorakada izan du eta Debegesan ditugun Birgaitze- eta Energia-zerbitzuetan kontsulten gorakada egon dela ikusi dugu. Jendea arduratuta dago eta bi gauza jakin nahi dituzte batez ere: batetik, nola aurreztu dezaketen; eta bestetik, energia era berriztagarriago batean nola ekoiztu dezaketen. Beraz, etxe guztietara ezin garenez iritsi irtenbide pertsonalizatuak ematera, pentsatu genuen interesgarria izan daitekeela gida bat sortzea, norberak irizpide batzuk eduki ditzan, gero bere kabuz etxebizitzaren hasierako diagnostikoa egiteko.

### Gida sortzeko orduan, zein informazio eskatzen diezue parte-hartzaileei?

Gida tutorizazio-prozesu baten bitartez sortzen dugu. Izan ere, esperientzia errealean bitartez sortzen da. Horretarako, prozesu honetan parte hartzeko prest dauden etxebizitzak behar ditugu. Izena ematen dutenean, enpresa bat euren etxebizitzetara joango da bisita egitera eta bizilagunek informazio bat eduki beharko dute prest. Hala nola, azken hilabeteetako faktura energetikoak eta kontsumo ohiturak. Bestetik, energia kontsumo iturri diren elementuak zeintzuk diren begiratuko dute (argiteria, etxetresna elektrikoak...) eta elementu horiek nola erabiltzen diren informatzea garrantzitsua da gero planteatuko diren ekintzak benetan eragingarriak izan daitezten.

### Gida horrek zein eduki izango ditu herritarrentzat?

Tutorizatzen ditugun etxebizitzek energiaren diagnostikoa izango dute. Bertan, etxebizitza horretara egokituta egongo diren ohituren, inbertsioen, energia berriztagarrien eta dirulaguntzen inguruko gomendioak eta ekin-tza-plan bat jasoko dira.



### Zertarako balioko du horrek guztiak?

Lehentasunak markatzeko, eragin elementuak nun ditugun jakiteko eta, gutxi gorabehera, arlo energetikoan ekintzarik garrantzitsuenak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko. Gero, tutorizazio prozesuarekin ikasiko dugu informazio eraginkorra modu errazean nola eman daitezkeen eta, horrela, irizpide batzuk emanez hori jakinarazi nahi dugu, bakoitzak bere autodiagnostikoa egiteko baliabideak izan ditzan.

### Etxebizitza gehiagok izena eman dezakete oraindik ekimen horretan?

Bai. Interesa dutenek agenda2030@debegesa.eus helbidera idatzi edo 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete.

**EUSKARALDIA**

HITZETZ EKITEKO

**GARAIA**



**AHOBIZI**



**BELARRIPREST**